



Pandemiaren ikasgaiak

Eka. 25 2021

Kod. W13-21

Mod.:

Online zuzenean

Edizioa

2021

Jarduera mota

Jarduera irekia

Data

Eka. 25 2021

Kokalekua

Online zuzenean

Hizkuntzak

Gaztelera

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA
BERRIKUNTZA SAIALA
DEPARTAMENTO DE CIENCIA,
UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN

Azalpena

UPV/EHUko Uda Ikastaroen irekiera akademikoko hitzaldian pandemiaren ikasgai buruz hitz egingo du Antoni Trillak, COVID-19 Batzorde Zientifiko Teknikoko kideak.

Hitzaldiaren amaieran Nisa Goiburu artistak performance bat zuzenduko du.

Pandemiak erakutsi digun ikasgai nagusia da ez dugula gaitasunik guztiak babesteko.

Pandemiaren ikasgai nagusia izan da ohartaraztea gaixotasun infekziosoen garrantziaz eta guztiak benetan babesteko dugun ezintasunaz, normalean ez zaielako gaixotasun infekziosoei beharrezkoa den garrantzirik ematen.

"The Lessons of the Pandemic" artikulua, Science aldizkarian argitaratu zenak, bizitako egoeraren laburpen ona eskaintzen digu.

Denoi eragin digun pandemiak ez du aurrekaririk. Inoiz ez da katastrofe suntsitzaile eta unibertsalik izan, modu horren bortitzean hasi dena. Pandemiaren gauza deigarrietako bat da bere agerpena misterioz inguratuta dagoela. Bazirudien inork ez zekiela zer motatakoa zen gaixotasuna, benetan nondik zetorren eta nola geldiarazi zitekeen. Zientziarekin beste gaixotasun infekzioso batzuk kontrolpean izatea lortu dugu, baina honakoan badirudi gaixotasun horren atzetik doala oraindik. Beste gaixotasun infekzioso batzuk bezala kontrola zitekeela uste zen, baina besteak ere ez dira inoiz benetan menderatu.

Gaixotasunaren prebentzioan eragin dezaketen hiru faktore nagusi daude. Lehenengoa biztanleria orokorraren axolagabekeria erlatiboa da. Jendeak ez du egoera ongi ebaluatzen eta batzuetan ez ditu arriskuak ezagutzen. Sintoma aniztasunak (hotzeria arrunt batetik hasi, pneumonia larri batera iritsi arte) arriskua ezkutatu eta nahastu dezake. Gehienentzat gaixotasuna, arriskua baino gehiago, traba bat da. Jende asko tratamendurik gabe sendatzen da.

Bigarren faktorea banakako prebentzio eta kontrol neurrien izaera da. Arnas jariakinak kutsatzeko bide nagusia dira, airera proiektatzen direnean, eta kasu askotan inolako susmorik gabe izaten da. Kontrol metodoek, beraz, balio mugatua dute. Gure izaeran eta pentsatzeko moduan ez da oso ohikoa pentsatzea besteak nola babestu.

Hirugarren faktorea gaixotasunaren kutsagarritasun handia da: inkubazio aldi laburra du, sintomak hasi aurretik transmititu daiteke, eta eramaile asintomatikoak bereziki arriskutsuak dira.

Inork ezin du gaixotasunari buruz aditu moduan hitz egin. Froga, egitate eta datu guztiak ditugunean, orain arte izan ditugun ideia batzuk aldatu egingo dira. Pandemia oso hurbil dago oraindik, bere tamaina eta eragin osoa ebaluatu ahal izateko. Metatutako datu kopuru izugarria aztertu beharko da, erabilitako kontrol-neurrien eraginkortasunari buruz benetan erabaki aurretik. Hori egin arte, ezinezkoa izango da zehaztea zenbat jende kaltetu den, zenbat hil den eta zenbat ondorio dituen gaixotasunak, eta are gutxiago zer lotura dagoen datu horien eta erabilitako prebentzio neurrien artean. Hilabeteak eta, agian, urteak igaro beharko dira pandemiaren inguruko azterketa guztiak amaitu arte.

Nisa Goiburu artista Tolosarrak "Mugimenduaren bitartez berriro ikasi" performancea zuzenduko du Garazi Eiguren dantzariarekin eta Musikeneko Sua Sax saxofoi laukotearen musikarekin.

Helburuak

Programa

2021-06-25

12:00 - 12:05	<p>“Ongietorria / Bienvenida“</p> <p>Itziar Alkorta Idiakez UPV/EHUko Uda Ikastaroen zuzendari akademikoa / Directora académica de los Cursos de Verano de la UPV/EHU Rafael Pardo Avellaneda BBVA Fundazioaren zuzendaria / Director de la Fundación BBVA</p> <hr/>
12:05 - 12:10	<p>“Hitzaldiaren aurkezpena / Presentación de la conferencia“</p> <p>Rafael Pardo Avellaneda BBVA Fundazioaren zuzendaria / Director de la Fundación BBVA</p> <hr/>
12:10 - 12:40	<p>“Lecciones de la pandemia“</p> <p>Antoni Trilla García Bartzelonako Unibertsitatea / Universitat de Barcelona - Osasun Publikoko katedraduna eta COVID-19 Batzorde Zientifiko Teknikoko kidea / Catedrático de Salud Pública y Miembro Comité Científico Técnico COVID-19</p> <hr/>
12:40 - 12:50	<p>Eva Ferreiraren parte hartzea. UPV/EHUko Uda Ikastaroen presidentea eta UPV/EHUko errektorea / Intervención de Eva Ferreira, Presidenta de los Cursos de Verano de la UPV/EHU y rectora de la UPV/EHU</p> <hr/>
12:50 - 13:00	<p>Performancea Nisa Goiburu artistarekin eta Garazi Egiguren dantzariarekin eta Sua Sax Musikeneko saxofoi laukotearekin / Performance con la artista Nisa Goiburu y la bailarina Garazi Egiguren junto con el cuarteto de saxofones de Musikene Sua Sax</p> <hr/>

Irakasleak



Antoni Trilla García

Miembro Comité Científico Técnico COVID-19

Osasun Publikoko katedraduna eta Bartzelonako Unibertsitateko Medikuntza Fakultateko dekanoa da. Barne Medikuntzan, eta Prebentzio Medikuntzan eta Osasun Publikoan aditua. Hospital Clínicoko Prebentzio Medikuntza eta Epidemiologia Zerbitzuko burua. Bartzelonako Osasuneko Institutuan (ISGlobal) ikerketa-irakaslea. Hospital Clínicoko COVID-19ren txertaketa programaren eta ospitaleko erreferentzia-eremuaren (AIS Esquerra Eixample) koordinatzailea. 226 artikulu argitaratu ditu indextatutako nazio eta nazioarteko aldizkari biomedikoetan, eta horien % 50 SCIren lehen kuartilean izan dira. Salut Saileko, Osasun Ministerioko, ECDCko eta OMEko aholkulari zientifikoa. Bartzelonako Medikuen Elkargoko Gobernu Batzordeko kidea. Institut d'Estudis Catalanseko kidea. Reial Acadèmia de Medicina de Catalunya kidea. Bikaintasun Profesionalaren Saria - Bartzelonako Sendagileen Unibertsitatea. Josep Trueta domina Kataluniako Meritu Sanitarioan.



Itziar Alkorta Idiakez

Uda Ikastaroak / Cursos de Verano, Zuzendari akademikoa / Directora académica

Zuzenbidean doktorea eta EHUko Zuzenbide Zibileko irakasle titularra. Bere ikerketaren ildo nagusia bioetika da eta gai horren inguruan hainbat monografia, artikulu zientifiko eta dibulgaziokoak argitaratu ditu. VI eta VII Europako Programa Marko-ko 4 ikerketa-proiektutan parte hartu du, baita Programa Nazionaleko hainbat ikerketa-proiektutan ere. New Yorkeko Hastings Center for Bioethics, Filadelfiako Unibertsitateko Center for Bioethics eta Bordeleko Unibertsitateko irakasle bisitaria izan da. Eusko Ikaskuntzako idazkari nagusia izan zen, eta ondoren Jakiundekoa, Zientzia, Arte eta Letren Akademiakoa. UPV/EHUko irakaskuntzako kalitate eta berrikuntzako errektoreordea 2008 eta 2012 urteen artean, eta hezkuntza-ereduaren garapenaz, kalitate-programez eta unibertsitateko irakasleen prestakuntza eta ebaluazioaz arduratzen da. 2013 eta 2015 urteen artean, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea izan zen.



Matrikula prezioak

IZEN EMATEA - ONLINE ZUZENEAN

2021-06-25 ARTE

MATRIKULA DOAN

0 EUR

Kokalekua

Online zuzenean

Online zuzenean